

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresak kalitatezko eta egoera perfektuko janaria eskaintzen du, aste beteko janaria eskatzeko aukera emanez. Besteengandik bereizten gara, bezeroek elikagaiak aukeratu eta haien interesen arabera menuak sortu ditzaketelako. Garapen egokia lortzeko, beste batzuekin harremanetan jartzea funtsezkoa da. Garrantzi gehien dutenak honako hauek dira: elikagaien kalitatea bermatzeko osagaien hornitzaileak; logistikako eta banaketako enpresak; elikagaien segurtasuneko enpresak, gure bezeroen osasuna arriskuan ez jartzeko; nutrizionisten eta dietisten enpresak, menu espezializatuak eskaintzeko; eta, azkenik, datuak kudeatzeko eta pertsonalizatzeko enpresak.

Bigarren mailan, gure enpresak packaging jasagarriak garatzen dituzten enpresekin bat egingo du, gure jarduna iraunkorragoa izan dadin eta kutsadura murrizteko. Azkenik, marketinak ere garrantzi handia izango du bezeroen arreta erakartzeko.

Lehenik eta behin, osagaien hornitzaileek garrantzi handia izango dute gure enpresarako. Kalitate handiko elikagai freskoak hornitzen dituzten enpresak beharko ditugu, askotariko osagaiak eskaintzen dituztenak, menu pertsonalizatuaren nutrizio-baldintza espezifikoak betetzeko. Bazkide horiek kalitatea eta entrega-denbora egokiak bermatuko dituzte. Horien artean, mota guztietako produktuak eskaintzen dituzten hornitzaileak egongo dira, hala nola esnekiak, haragia, landareak eta abar, baina nitxo jakinetan espezializatutako elikagaiak ere behar ditugu, hala nola jatorri begetaleko elikagai ekologikoak edo intolerantziak dituzten pertsonentzat egokiak direnak. Hau ez da bakarrik kalitatezko ekarpenengatik funtsezkoa, baita izango dugun hornidura-bariedade handiagatik ere. Hornitzen gaituzten enpresa nagusien artean hauek daude: Ekonoke, COCUUS system, eta Atacama.

Janariaren banaketarako enpresek aukera ematen diete bezeroei gure produktuak azkar eta erosu jasotzeko, mugitu behar izan gabe. Gure produktuak pertsona gehiagorengana iristea eta diru-sarrerak handitzea ahalbidetzen dute, kontsumitzaileei aukera zabala eskainiz. Gainera, teknologia aurreratua erabiltzen dute eskaerak eta entregak eraginkortasunez kudeatzeko, bezeroaren esperientzia hobetuz eta malgutasuna eskainiz. Gure enpresak onura handiak aterako ditu DHL Food Logistics-ekin elkartzean, bere azpiegitura sendoari eta elikagai galkorren erabileran duen esperientziari esker. DHLk ziurtatzen du produktuak fresko iritsiko direla eta elikagaien segurtasun-arauak beteko dituztela, eskalako ekonomiak aplikatuz kostuak murrizten dituen bitartean. Logistika haien esku uztean, bezeroaren esperientzia hobetzea eta gure eginkizuna merkatu berrietara azkar eta eraginkortasunez hedatzea ahalbidetuko dugu.

Gure janariak eta zerbitzuak osasun-arauak betetzen dituztela bermatzeko, Bureau Veritas, SGS eta NSF International bezalako enpresekin lan egingo dugu. Bureau Veritasen elikagaien segurtasun-auditoriak egiten ditu; SGSe elikagaien azterketa eta ziurtapena burutzen du; eta NSF Internationalek HACCP bezalako segurtasun-estandarrak ziurtatzen ditu, kutsadura-arriskuak murriztuz eta elikadura-segurtasuneko arauak betetzen direla bermatuz.

Gure enpresak teknologiko eta software-garapeneko enpresa bat kontratatuko du, prozesuak automatizatzeko eta eraginkortasun operatiboa hobetzeko. Indra izango da gure aliatua, plataforma digital pertsonalizatuak garatzeko eta datuak aztertzekeo tresnak eskaintzeko, erabaki informatuagoak hartzen laguntzeko. Halaber, sistema eskalagarri bat izango dugu, hazkundera errazteko eta bezeroen datu sentikorren segurtasuna bermatzeko.

Bezeroei mantenugaien arabera janaria pertsonalizatzeko aukera emango dien sistema bat diseinatzeko, ezinbestekoa da nutrizioan adituak diren pertsonak izatea. ASNUTRIK

nutrizio-aholkularitza eskainiko du, eta Nutrium softwareak iragazki bat sortzen lagunduko digu, bezeroek menuak ezagutza handiagoz eta errazago aukeratzeko.

Marketina eta harreman publikoak behar ditugu bezeroak erakartzeko eta merkatu lehiakor batean nabarmentzeko. HubSpot eta Buffer erabiliko ditugu. HubSpot-ek marketin-kanpainak automatizatzen eta bezeroak kudeatzen lagunduko digu, esperientzia erakarri eta pertsonalizatuagoa eskainiz; Buffer-ek, berriz, argitalpenen programazioa eta sare sozialen kudeaketa erraztuko ditu, gure ikusgarritasuna handituz eta interakzioa optimizatuz.

Azkenik, packaging jasagarriak garatzen dituzten enprekin harremanetan jarriko gara. EcoEnclose izango da gure aliatua, kartoi birziklatuzko kutxak eta birziklagarriak diren materialak erabiliz, gure produktuak fresko mantendu eta ingurumen-inpaktua murrizteko.

Ikus dezakegun moduan, mota askotariko enpresa ezberdinekin elkarlanean arituko gara, gure enpresari garapen egokia eta arrakasta bermatzeko. Hala ere, batzuek besteek baino eragin handiagoa izango dute gure proiektuaren hazkunderan.